

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Erriberako herritarren parte-hartzeari buruzko jardunaldia

Ollo kontseilariak eta Larrarte alkateak datorren asteartean herritarren parte-hartzeak elkarteen kudeaketa publikoan eta pribatuan duen garrantziaz hausnartuko duen jardunaldia zabalduko dute datorren asteartean

Osteguna, 2018.eko urriak 11

Nafarroako Erriberako erakunde publiko zein pribatuetako arduradunek eta beraien elkarreetako kudeaketan herritarren parte-hartzea bultzatzeko interesa dutenek hitzordua dute datorren asteartean Tuteran gobernu irekiaren inguruko hausnarketan parte-hartzeko. [Jardunaldiaren](#) irekiera Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari, Ana Ollo, Tuterako alkate eta EDEReko lehendakari Eneko Larrartek egingo dute.

Jardunaldia goizeko 09:00etan hasiko da Ederren egoitzan eta publiko guztiari dago zuzendua orokorrean, batez ere Nafarroako Erriberako toki entitateetako eta beste erakunde sozial, enpresarial eta aholku-emaile batzuetako politikariak eta teknikariei. Hala jardunaldira joateko interesa dutenek [honako loturan](#) eman dezakete izena.

Erakundeen kudeaketan parte-hartzearen garrantziaren inguruko hausnarketa egitearekin batera, lan jardunaldian Erriberako udalek eta bestelako erakundeek abian jarritako esperientzien berri ere emango da. Era berean, toki entitate zein bestelako elkarte ekonomiko zein sozialetan parte-hartzea hobetu eta bultzatzeko ekimenak zehaztuko dira.

Nafarroako Gobernuak Herritarren Partaidetzarako Ataleko buruak, Javier Asín, eta Tuterako UHUNeko Tuterako Hiria Kalitate Katedrako zuzendariorde teknikoak, Angel Miron dok "Herritarren parte-hartzea kudeaketa publikoan eta pribatuan" hitzaldia eskainiko dute.

Jarraian, Eder Partzuergoko kudeatzaileak, Abel Casadok, Nafarroako Gobernuaren aitortza duen, Nafarroako Erriberako Espezializazio Adimentsuaren Lurralde Estrategiaren parte-hartze prozesua aurkeztuko du.

Ondoren, Cascante, Castejón, Arguedas eta Tuterak garatutako parte-hartze esperientziak aurkeztuko dituzte. Sektore pribatuko erakundeen aldetik, Tudela comparte Fundazioak Villa Javier proiektua aurkeztu du, gainera Recicleta elkarte eta Caixabanken egitasmoak ere aurkeztuko dira.

"Parte-hartze publiko eta soziala bultzatzeko aurrerapen eta erronka berriak" mahainguruaren ostean, Pablo Azkona, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakariak itxiko du jardunaldia.

Jardunaldi hau Nafarroako Gobernuak eta Eder Partzuergoak antolatu dute, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Tuterako Udaletxea eta Erriberako hiriburuko UHUNek lagundurik.